



Mondragon
Unibertsitatea

Goi Eskola
Politeknikoa



2009
2024

ANTOLAKETA - ARRAKASTARAKO SIMULAGAILU AURRERATUA SIMULATU, AZTERTU ETA ERABAKI: **FLEKSO**

Berrikuntza, Antolakuntza Eredua eta
Pertsonen Estrategia saila

ZER DA FLEKSO?



FLEKSO abangoardiako simulazio digitaleko ingurune bat da, eta aukera ematen die enpresa-liderrei agertoki errealista eta dinamikoekin elkarreragiteko. Simulagailu horretan, parte-hartzaileek erabaki estrategikoak har ditzakete, eta denbora errealean ikus dezakete erabaki horiek nola eragiten duten laneko ongizatean eta enpresen errendimenduan, benetako arriskurik gabe.

Tresna horrek kudeaketa operatiboari buruzko hausnarketa sakona egiten laguntzen du. Hartutako erabakien konbinazioak denboran zehar dituen ondorioak aztertzen dira.

FLEKSO sortzeko, sistema-dinamikaren metodologia erabili da, ikuspegi zirkularra eta denborazkoa ematen duena. Horri esker, sistema konplexuak ulertu eta aztertu ahal izan dira, horiek osatzen dituzten kausa-erlazioak modelatu ahal izan dira eta denboran zehar portaerak simulatu ahal izan dira. Eraitza gisa, erabaki operatiboek laneko ongizatean eta enpresaren errendimenduan duten eragina azter daitezke.



GARAPENA ETA ZEHAZTASUNA

- FLEKSO hamar urte baino gehiagoko ikerketaren emaitza da, Gipuzkoako Foru aldundiak bultzatutako **BATERATZEN** eta **Mondragon-eko kultura ekimen** datu-basetatik lortutako datuekin eraikia, Euskal Autonomia Erkidegoko 360 erakundetako 49.000 pertsonaren datuekin, 300 elkarrizketa eta 150.000 inkesta bateratuz.
- **Mondragon Unibertsitateko** ingeniari-tza-fakultateko ikertzaile-talde batek garatua izan da **15 urtetan** zehar.





ZERTARAKO

- **Ikuspegi orokorra.** Inplikazio handiko lan-sistemak ezartzeko prozesuak enpresaren laneko ongizatean eta errendimenduan aldi berean nola eragiten duen ulertzen laguntzen du.
- **Iraunkortasuna kudeaketa operatiboan.** Epe laburrerako eta luzerako kudeaketari buruz sensibilizatzen du, baita hainbat elementuren kudeaketa konbinatuari buruz ere.
- **Laneko ongizatea hobetzea.** Pertsonen gogobetetasuna eta konpromisoa areagotzen duten lan-diseinurako estrategiei buruz hausnartzen laguntzen du.
- **Trebetasunen garapena.** FLEKSO zuzendaritza-taldeek pentsatzeko eta jarduteko duten modua eraldatzeko diseinatu da, erabaki informatuak eta estrategikoak hartzeko gaitasuna handituz.



NORENTZAT

- Erakundeetako zuzendaritza-taldeak, jakitun direnak zeinen garrantzitsua den laneko ongizatea eta enpresaren errendimendua aldi berean lantzea enpresen iraunkortasunerako eta lehiakortasunerako.
- Jasangarritasunerako kudeaketa operatiboari buruzko abangoardiako ezagutza eskuratzeko jakin-mina duten profesionalak.
- Enpresetako etorkizuneko zuzendariak prestatzen dituzten ikastetxeak.





MONDRAGON UNIBERTSITATEKO

Berrikuntza, Antolakuntza Eredua eta
Pertsonen Estrategia saila

Non gaude?

Loramendi 4, 20500
ARRASATE, Gipuzkoa
asanchezz@mondragon.edu

Ane Sánchez-Zeziaga
Unai Elorza
Alaine Garmendia
Mikel Sanz
Urtzi Uribetxebarria
Maite Zaitegi
Josu Urkiola

www.bateratzen.net